

## Ihesi

MIXEL THIKOIBE

Argazkiak: Gaizka Iroz

## Garruze (Nafarroa Beherea)

# Mendeen eta jendeen pasabidea

Hilabete bat da Mixel Thikoiperekin izandako solasaldia argitaratu genuela ARGIAN. Oraingoan berriz, haren lumari eskaini diogu tartea. Hotz bero liburuan bezala, Thikoipek Amikuze bailarako oihartzunak ekarri dizkigu Garruze herriari buruzko lerro hauetan. Urtean behineko azokari esker eztanda egiten duen herri lasaia da Garruze, Ipar Euskal Herrian “barnealdea” esaten zaion horren bihotzean kokatua.

GARRUZE ene sorlekuko auzo-herria da, eta lekukoa banintz bezala mintzatzen zait. Bide bakoitzak, etxe bakoitzak, harri bakoitzak, denek deitzen naute, eta hango bihotzaren taupadak sentitzen ditut. Gaineko aldean eliza eta plaza, behean etxe multzo bat karrika zuzen eta hertsu baten luzaeran biribilduak, Amikuzeko herri polit bat muino ton-tor baten gainean datza, sai area bat bailitzan, eta bi mila urteren bitartean konta lezaketen harrien baitan dago bere historia. Baita ere geroa, memoria labur bada ere, mende eta mendeen eraginak ez dira ezkututzen, geroa ere hor dagoela erakusten baizik. Garruzeko 290 biztanlek duten kemena *atzõ hala, egun bola, gero ikusiko nola* atsotitzean oinarritzen da, jakina.

Ipar Euskal Herrian gaude, Baxenabarreko Amikuze eskualdean, Donapaleutik bi kilometrotan, hau baita kantonamenduko hiriburua. Hegoalderantz, Iruñetik 120 bat kilometrok bereizten gaituzte, Iparralderantz aldiz 55 ditugu Baionara heltzeko, Bidaxunen

gaindi. Bien arteko euskal herria da Garruze, barnealdea deitzen dutena, bere euskalki bereziarekin, Xiberoa, Lapurdi eta Oztibarrerren auzoan kokatua. Eta Okzitania ere hurbil, Biarnoko lehen herrietara heltzeko hamar kilometrorik ez da egiteko ekialderantz. Turruna deitzen duten muino gainetik hemezortzi ez-kila-dorre ikus daitezke, azpian antzinako jauregi baten harresiak direlarik, kasik ahantziak bezala, abandonatuak.

**Erdi Aroko paperetan aurkitzen da ordena, merkatua astero eginen zela, baita ere feria berezi bat, Britxi sainduari dedikatua**

Orotara 300 bat hektarea lur eremu ditu Garruzek, eta laborari etxe bat baizik ez dago oraindik laborantza duena bizibide bakarra, nahiz eta hamar bat etxalde dauden

herrian kokatuak, baina hauetako biztanleek lan egiten dute herritik kanpo, beren eremuak tipiegi dire-lako hartarik bizitzeko. Gisa horretan, herri honetako bizitasuna beste nonbaitetik dator. Zurgintza, iturgintza, mekanika tailer bat, ostatu bat, eta besteak langile auzoko hiri herrietan, horra nola herri honetako arima bizirik dagoen betidanik, eta agian betirako.

### Milaka jende biltzen duen azoka

Urtean behin, uztailaren 31n eta agorrilaren 1ean, feria arrakastatsu batek pizten ditu karrika guziak: hamar milaz goitiko jendetza biltzen da, zaldi eta behi salketek erakarrak, nahiz ikusliar bilakatuak diren heldu diren gehienak. Salma-haiak gero eta ugariagoak dira, aspaldiko haritz zaharren pean itzal gozo batek babesten dituenak. Erdi Aroko paperetan aurkitzen da ordena, merkatua astero eginen zela, baita ere feria berezi bat, Britxi sainduari dedikatua. Geroztik, urteak joan, urteak jin, XX. mendea artino iraun du, Donapaleuko hiriaren jeloskeria-





Hamar milaz goitiko jendetza biltzen da urtero, uztailaren 31n eta agorrilaren 1ean, Garruzen egiten den azokan, zaldi eta behi salerosketak erakarria.

gatik merkatua galtzen zutela behin hamabostetik eginez, gero alderat. Gaur egun, bakarrik feria dute atxikitzen.

Plazaren berezitasuna, Jainkoak bakarrik baitaki noiz landatuak diren haritz zaharretatik dator, nahiz eta ekaitz eta aroaren kas-taldien eraginak jasanik orain haietarik gutxi baizik ez den oraino zutik geratzen. Udako bero handienetan goxo da haien azpian ameslari bilakatzea, oroitzu zenbat belaunaldik beren urratsak handik pasatu dituzten. Handik hurbil, agertzen zaigu lehengo azoka estalia, XVIII. mendean eraikia, oraingoz berritua: iragana eta oraina lotzen dituen sinbolo eta lekukoa. Azoka horren historia luzea da, baina garruztarrek jakin izan dute bizi berri baten ematen eraikuntza famatu honi: duela bi urte kultura eta herriko bizitzari berpizte baten asmatzeko, antolakuntzak egin dituzte azoka arraberrituz, lan gotorrak planteatuz, bai barnealdearen antolatzeke, bai kanpoko itxura-

ren berritzeko eta laster irekitzekotan dute “kafe-antzoki eta harreman landatar” proiektua. Hor kausituko dira elkarteentzat beharrezkoak diren leku eta egiturak: gela, zerbitzu komunak, ostatu bat batzoki moldean, biltzar eta jan leku, antzoki eta kantaldien antolatzeke behar diren egitura eta guneak. Hau ez bada Garruze geroari arras emana den seinale bat.

### Hamaika inbasoreren pausaleku

Garruze aspaldidanik ezagutua da, Carasa izenez aurkitzen da Julio Zesarren inbasioen kontaketatik eta pentsatzekoa da erromatarren gudaroste geldiduna zela Bordele eta Astorgako bide famatuan, Pirinioak zeharkatzeko erabiltzen zutena. Harrobi ezproi luze baten gainean eraikia izan da herri hau, Mehaine, Behauze eta Lukuzeko herri auzoen segidan. Garruze izena ere hortik dator, “gain-harri-luze” hitz erroez osatua liteke haren izena, eta Euskal Herrian ohi den bezala, hitzak korapilatuz

eta bilduz “Garruze” bilakatu da denborarekin.

Historian zehar anitz gertakizunek osatu dute herri honen bizia: iparraldetik hegoranzko bide nagusia zenez, erromatarrez bestalde inbasio ugari jasan ditu mendez mende, arabiarrek, frankoak, barbaroak, sekula ahaztu gabe bere izaera eta bere nortasuna. Gero berantago, Erdi Aroan erlijio gerrak jasan ditu, bereizkuntza izugarriak eraginez herriko biztanleen artean, eliza ere erre baitzuten garai hartan. XVII. eta XVIII. mendeetan Garruze gailurrean zegoen, notable, uxer, zirujau, tratulari eta eliza-arduradunehornitua baitzen. Hor ditugu frogatzat hainbat etxe harri pikatuzko itxuraz apailatuak, karrikaren bi aldetik desafioka elkarri so oraino xutik dirauenak. 1790. urtean, Frantziako Iraultzaren ondotik, Garruze kantonamenduko hiriburu izendatua izan zen. Berantago Napoleonen denboran espainolak izan zituzten partida, eta muino gotor horren alboan



Konpostelarako bidean da Garruze, goiko argazkian ikus daitekeen estatuak ageri duenez. Ezkerrean, berriz, herriko jauregi zaharra.

gudu bat baino gehiago sailkatuak izan dira, bereziki Harizpe marexalaren *chasseurs basques* gudarosterekin gertatu direnak.

Garruze Konpostelarako bidean da, Frantzia iparraldetik zetorren bidegurutzean, Oztibarerra zuzenki doana eta orain ere egiten da bide hori, bi muinoren artetik erreka gunehar baten lekutik pasatzen den ibilbidea hartuz geroz. Hortik iragaitean, ikus daiteke, gure eskualdeetan arraro den gauza, XIX. mendeko “termalismo” edo bainu-etxe baten arrastoak, ur sufredunak baliatu beharrean birika, larru eta zainetako ezbeharrak sendatzen zituena. Egia erran, denbora haietan anitz bizitasun erakusten

zuen herriak, hamar bat ostatu, negozio, merkatu eta zenbat holako egitateri esker biztanleria anitzez ugariagoa baitzen, baserrietako herri guzietan bezala, baina modernitate eta progresoarri “esker” behera egin du ondoko urteetan zehar.

### **XVII. eta XVIII. mendeetan Garruze gailurrean zegoen, notable, uxer, zirujau, tratulari eta eliza- arduradunez hornitua**

Behera bai, baina ez etsitu, garruztarrek erakusten dute XXI.

mende hastapen honetan, oraino azkar jo nahi dutela, eta elkarte bat sortu dute, “Lehenko Garruze” deitua. Horri esker berpizte bat abiatu herriko etxea berrituz, karrika zaharrak entretenituz eta sailkatuz, etxe zaharren historiari buruzko ikerketa eta antolaketa lanak lagunduz, feriaren antolakuntzaz arduratuz, besta komitea bultzatuz, adin ederreko elkarteak planteatuz, gazteei buruzko animazio ekitaldiak apailatuz, eta abar, eta abar...

*Norat joan jakiteko, nondik jin jakin behar*, horra beren azken hitza: Garruzen zertarik eta nondik zetorren badakite, eta segur nora joateko xede hori hor daukatela, bihotzean, hola baizik ez baita garruztar izaten ahal, diotenez! ■



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA  
943308220 • [www.arbelaitz.com](http://www.arbelaitz.com)

*Arbelaitz Jatetxea*